

noaia

**Usurbildar ekoizpena,
Durangoko Azokan**

**Hamar urte bete ditu
Eguneko Zentroak**

**"Erraustegia:
kedarretatik argira"
hitzaldia Sutegin**



Inaxio Usarralde, gai jartzailea

**"Goian dagoen bertsolariarentzat,
txapelketetan gehiago egoten da
galtzeko irabazteko baino"**



Marije
Arropa denda

 facebook.com/marijearropadenda



FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?
DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN

ASEGURURIK EZ DUZUE?
AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK

Tel: 943.36.21.63

BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHOZKETA
ENPRESENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN

info@funerariagonzalez.es munalurra 8, Usurbil



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



Estética
Lourdes Larrañaga

3x2

- FOTODEPILAZIOAN
- ERDI-IRAUNKOR MANIKURAN
- BETILEEN TINDATZE ETA PERMANENTEAN

3x2

Tel. 943 362 887
Mov. 619 060 685
lourdesesteticalourdeses.es
www.esteticolourdeses.es

Albiste iruditan

80 urte eta sasoi ederrean

Miren Elgarresta, Pakita Etxeberria, Juanita Peña, Asun Erauntzetamurgil, Gonzalo Colado eta Joxe Mari Bengoetxea albiste ditugu. Aginagako Arrate Egoitzako kideok, 80 urte bete baitituzte amaitzean dugun 2013. urte honetan. Eta pozikasko ospatu zuten urtebetetzea, senide eta lagunez inguratuta, elkarrekin azaroaren 17an egin zuten omenaldian. Lehenik meza izan zuten eta ondoren, Aginaga sagardotegian bazkaritarako bildu ziren. Ia 100 lagun guztira, giro eta alaitasun ederrean. Usurbilgo Udalaren izenean, Mertxe Aizpurua alkatearen eta Iñaki Ugarte zinegotziaren eskutik, oparirik ere jaso zuten zortzi hamarkada bete dituen seikoak. Zorionak denei eta segi horrela! Irudia: Maria Angeles Arruti.



Azaroaren 17an omenaldia egin zitzaion Aginagako Arrate Egoitzan.

Laburrean

Lubiziek eragin kalteak, konpontzeko bidean

Lubizi batek Urkamenditik larberako bidean sortu zituen kalteak konpontzeko bidean dira. Excavaciones Bergaretxeri esleitu zaio lan hori eta berehala hasiko dira konponketak. Udal iturriek adierazi digutenez, Udarregi bidean dau den beste bi bide ere konponduko dira. Foru Aldundiak Udalei onartutako ebazpen baten diru laguntzarekin ahalbidetuko dira konponketak.

Gabon parkean lanean aritzeko begirale bila

Usurbilgo Udalak eguberrietan Oiardo Kiroldegian antolatu ohi duen Gabonetako Parkerako begiraleak behar dituzte. Bertan lan egiteko interesa duenak, kurrikuluma bidali dezake helbide honetara: keima@sartu.org. Lanerako eskatzen duten profila honakoa da: batetik, begirale titulu izatea eta bestalde, EGA edo titulu baliokidea izatea.

Igande honetan, Odol Emaileen Eguna

Usurbilgo Odol Emaileek lan isila bezain ederra egiten dute urte osoan. Abenduaren 8an, ohiturari jarraituz, bazkari baten bueltan elkar-tu ohi dira. Atxega Jauregian izango da odol emaien hitzordua. NOAUA!n azken zenbakietan aditzera eman dugun bezala, bazkarirako txartela alde aurretik eskuratu beharra zegoen.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Bea Alda,

publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa:

Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Diskurtsoak birziklatzeko garaia

Bazetorrela bagenekien arren, oraindik luzerako jo zezakeela uste nuen. Baina ez, asteazken goiz batean, bat batean piztuzen "alarma" egoera NOAUA!n. Erraustegi proiektuarenak berea egin zuela eta korrika batean joan ginen Diputaziora azaroaren 13an, erraustegi planta lurperatuko zuen argazki historiko hura ateratzera. Urte luzez, desadostasuna, eta gatazka sortu duen proiektu bat bertan behera uztera zihoazela iragartzen entzun, ikusi eta erretratu genituen Kontsorzioa, Aldundia eta enpresa taldeko ordezkariak; adostasuna ezin hobeto irudika zezaketen moduan gainera, akordio batekin eta eskua emanda. Irudi hartako protagonistetako

bat, GHK-ko lehendakari Ainhoa Intxaurrendieta izango da ostegunean 19:00etan Sutegin.

Akabo erraustegiaren mehatxua. Hasteko, errauste planta lurperatzea posible egin dutenei, eskerrak eta zorionak! Egitasmo hau bertan behera uzteak ekarri du nobedade garrantzitsu bat; zenbait eragilek aipatu duten moduan, aro berri batean sartu gara. Eta orain bai, ez dago beste erremediorik. Europak hala agintzen duelako, zaborteziak ixterra doazelako, urte batzuk barru birzikla daitekeen guztia erretzea debeatuko dutelako, alternatibak, lehen bezala hautazko ez, orain beharrezko bihurtu dira. Hondakinen arazoa konpontzeko adostasun eta akordio-

en beharra izango da aurrerantzean. Bai Gipuzkoa mailan, baita udalerrietan ere. Zero zabor bidean noski.

Baina momentuz, batzuk ez dirudi horretarako interes handirik dutenik. Urte luzez itsu-itsuan, herritarren gehiengoaren aurka, herritarren bizkar, ezkutuan maiz, errauste planta defendatu izan dutenek ez dute bakerik. Hondakinen kudeaketan zabaldu den aro berri hau, muturtuta hasi dute. Ezin dute barneratu, euren ametsetako proiektua ez dela gauzatuko azkenean. Normala, urte luzez errealitatea desitxuratzen eginiko ahaleginaren ostean. Haserre egon behar orain. Garai berrietara egokituko ote dira? Beharko.

Besteak beste erraustegiaren aurrean dauden alternatiben kontra agertu den zutaz ari naiz. Hauteskunde kanpaina betean Usurbila etorri, eta hemen atez atekoa martxan jarria dagoenetik kaleak zikinak zudela zenion. Hori bai, boto batzuk lortzeko irribarre polit batekin erretratatu zintugun. Eta sudur zuloak tapatu beharrik izan gabe.

Edo zu. Hemendik gertu, herri bateko osoko bilkura batean, atez atekoa indarrean zenetik Usurbilen arratoiak zudela zenion. Bi hankakoak beharko. Eta orain, alternatibak martxan jartzea derrigorrezkoa izango den honetan, zer diozue? Zenbait diskurtso birziklatzen hasteko garaia bada jada.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Nerea Zinkunegi | Imanol Ubeda | Joxe Piñas

Zumarteren ekimenez, %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko eskaera Eusko Jaurlaritzari

Zumarte Musika Eskolak aurkeztu zuen aurreko asteko osoko ohiko bilkuran aztertu eta aho batez onartu ziren hiru mozioetako bat; musika eskolen finantzaketari buruzkoa. Udalak Eusko Jaurlaritzari eskaera zuzen hau bidera dezan galdetzen dute Zumartetik; "Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko asmotan, Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eta ekintza-plana ezartzea eskatzen dio".



Musika Eskolen finantzaketan, diru laguntzen partidak jaitzi egin ditu Eusko Jaurlaritzak azken urteetan.

Eskaerak, Eusko Legebiltzarrak urte hasieran aho batez onarturiko ez legezko proposamenari egiten dio erreferentzia: "Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen dio musika eskolentzat zehaztu gabeko epean %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko ekintza-plana ezartzea, mailaz-maila erabilgarri

diren baliabideen esparruan aurreratzeko, eta, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin, bere jardueraren hobekuntza eta eguneratzean lan egitea, musika-hezkuntzako arloaren sendotzea lortzeko asmotan".

Musika eskolen finantzaketan izan den beherakadaren haritik dator mozioak jasotzen duen eskaera. "Azken urte hauetan, Sailaren aldetik musi-

ka eskolen finantzaketak ia 2.500.000 euroko jaitziera garrantzitsua jasan du. Kasu gehienetan, toki-administrazioek bereganatu dute jaitziera hau. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak emandako finantzaketa %14koa da soilik, hasieratik guztiok defendatutako europar erudutik oso urrun", azaltzen du, aurreko astean udalbatzak aho batez onarturiko testuak.

Aldaketak, Txikiardiko errepidean

Egunotan Txikerditik Lasarte edo Urbil aldera joan zaretzenok, Arsuagako auzune parean lanean ari zirela ohartuko zineten. Zenbait aldaketa izango dira, Michelin aldera doan GI-3831 errepide honetan. Hemendik aurrera, errail batekoa izango da. Orain arte bertan kokatzen zen autobus geltokia lekuz aldatuko dute. Eta Arsuaga auzunera sartzeko oinezkoentzako bi pasabide berri irekiko dira.

Abidura moteltzeko eskaera

Lanokin Arsuagako auzunetik eginiko eskaerei erantzun nahi zaie. Batetik, duela hilabete batzuetatik bus geltokia irisgarria izatea eskatua baitzieten Usurbilgo Udalarri, baita errepide honetan ibiltzen diren autoen abidura moteltzea ere. Eskaerok Gipuzkoako Foru Aldundira bideratu zituen Usurbilgo Udalak. Eta Aldundia bera da, egunotan lanok gauzatzen aritu den erakundea.

Santo Tomas Azoka, abenduaren 22an

ABENDUAREN 9AN HASIKO DA SAGARDO ZEIN BABARRUN LEHIAKETEN IZEN-EMATEA

Baten bat galdezka etorri zai-gu jada, ia noiz izango zen aurtengo edizioa. Abenduaren 15ean ospatuko den Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketako finala dela eta, astebete atzeratuko dugu Santo Tomas Azoka. Santo Tomas egunaren biharamuneari izango dugu festa eguna Usurbilen. Abenduaren 22an, igande goiz eta eguerdi partean.

Azoka astebete atzeratzeaz gain, aurtengoan ere zenbait berrikuntza txertatu ditugu. Horien artean etxe-ko txikienak ere azokako parte sentituko dira aurten, Ixabel Agirresaroberi esker. Haurrentzako ipuin kontaketa saioa antolatu baitu NOAUA!k. Bestalde, Nafartarrak taldekoek Santo Tomas Azoka hautatu dute, Zube-roako Sohüta herriko Eperra ikastolari loturiko elkartasun kanpaina amaitzeko. Kantu Taldekoekin batera kalejira batek azoka ingurua girotuko du eguerdi partean. Gonbidatu bereziki gainera; Sohütako musikari, guraso eta kantariak baitatuz Usurbila.

Txapelketetako izen ematea, abenduaren 9tik aurrera

Eta gehiago ere izango da, asteotan iragartzen joango garen moduan. Jatekoa eta edatekoa; sagardoa, txistorra, gaztainak edota taloa esaterako. Eta ezin aipatu gabe utzi noski, Santo Tomas azokari azken urteotan erreferentzialtasuna eman dioten sagardo eta babarrun txapelketak. Parte hartu asmo duzuenok, hasi prestatzen, abenduaren 9an ekingo baitiogu bilketari. Hau da, datorren astelehenean, NOAUA!ko egoitzara ekar ditzakezue babarrun eta sagar-



Abenduaren 9an hasi eta 19an amaituko da izena emateko epea.

do txapelketetan aurkeztu nahi dituzuen produktuk. Honez gero buruz jakingo duzue, baina hemen badaezpada, txapelketa hauetan parte hartzeko jakin beharrekoak:

Sagardo eta babarrun lehiaketak
Izen ematea: abenduaren 9tik 19ra,

NOAUA!ko egoitzan. Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00/16:00-19:00. Informazio gehiago: 943 360 321.

Sariak:

1. saria: 150 euro+txapela.
2. saria: 90 euro.

3. saria: 50 euro.

Sagardo lehiaketa

Oharra: sagardotegiek ezingo dute parte hartu.

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa

Partaide bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du eta 12 euro ordainduko zaio. Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- Kolorea: zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- Berdintasuna: tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.
- Dizdira: berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.

Inauteri Festarako gaia, zuen esku

Urruti dago oraindik mozorrotzeko eguna. Hiru hilabete luze ditugu aurretik. Baina hobe dena azken momenturako utzi ordez, prestaketa lanei garaiz ekitea. Martxoaren 1ean ospatuko dugu Usurbilen, 2014ko Inauteri Festa eta NOAUA! Kultur Elkarteak antolaketak lanei ekin die jada. Hasteko, lehenik eta behin, inauteri egunean mozorrotzeko gaia zehaztu nahi

dugu. Zuen laguntzaz. Zertaz mozorrotu nahi duzue? Datorren Inauteri Festarako gaia, zuen esku oraingoan. Animatu eta parte hartu! Bidali zuen proposamena:

- E-posta: elkartea@noaua.com
- Telefono zenbakia: 943 360 321.
- Egoitzako jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 eta 16:00-19:00.



Argazkia: Lourdes Hueta.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

“Nik ere gelditu dut” jaialdia

ERRAUSTE-PLANTAREN EGITASMOA GELDITU IZANA OSPATUKO DUTE JAI BATEKIN

Pozik, esker oneko eta lortutako garaipena ospatzeko gogoz dira Gipuzkoa Zero Zabor eta herrietako Zero Zabor taldeak. Ez da eta gutxiagorako, “urte luzez gipuzkoarron osasuna, ingurumena eta ekonomia mehatxatu dituen proiektu toxiko horrenak egin du”, iragan larunbatean frontoian egin zuten agerraldian ziotenez. Geldiaraztea lortu eta eraikiko ez den errauste planta proiektuaz ari ziren noski. Azaroaren 13an Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak eta enpresek adosturiko akordio historiko hura mugarri bat dela adierazi zuten zero zabor taldeek, “zaborraren eta erraustetaren arori bukaera eman, eta, Zero Zabor aroa abiatzen duen mugarria”. Aro aldaketa hau garaipen bat dela, eta garaipena ospatzeko unea heldu dela diote.

Ospakizunerako hitzordua finkatu dute, aipatu moduan, abenduaren 29rako Usurbilen; “Nik ere gelditu dut” jaialdia. Ekimen honen inguruko zehaztasunen berri aurrerago eman go duten arren, abenduko eta urteko azken igandeko hitzordura gerturatzeko gonbita jada, luzatu dute: “Bidelagun izan ditugun herritar guztiokin batera ospatu nahi dugu garaipena. Haur, heldu eta gazte, guztiontzat animazio eta jai giroa izango duen jaialdia antolatuko dugu”.

Gonbita luzatzearekin batera, errauste planta geldiarazten lagundu duten herritar, eragile eta erakunde guztiak, “zorionak eta eskerrik beroenak” eman nahi izan zizkieten agerraldi berean, lorturikoaz gozatzera animatzearekin batera, gogorarazi dutenez, “urte luzez gipuzkoarron



Abenduaren 29rako antolatu dute ospakizuna.

ZERO ZABOR TALDEA

Herritar, eragile eta erakunde guztiak, "zorionak eta eskerrik beroenak" eman nahi izan zizkieten

osasuna, ingurumena eta ekonomia mehatxatu dituen proiektu toxiko horrenak egin du” eta. Lorpen handizat jotzen dute, errauste planta proiektua bertan behera uzteko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak enprekin iragan azaroaren 13an adosturiko akordio historikoa.

Gastu eta kalte ordainen erantzuleak

Ahotan hartu zituzten baita, eta zenbait eragile politikok esandakoaren aurrean argi utzi nahi izan zuten beste behin, errauste planta proiektua

gelditzeak ekarri dituen kostuak zenbeteoak diren. “Errauste planta eraikitzeak 200 milioit gorako gastua ekarriko liguke. 25 aldiz diru gehiago aurrezteko lortu dugu, Denisek eta konpainiak gastatu arazi nahi digutena baino. Osasuna eta ingurumena babesteagatik ordaintzeak merezi badu, nola ez du mereziko 200 milioi eurotik gora aurrezteak?”, galdetzen zuten zero zabor taldeetako kideek.

Errauste plantakeragin dituen gastu eta kalte ordain guztien ardua, bere garaian, Carlos Ormazabalak (EAJ-PNV) eta Denis Itxasok (PSE-EE) zuzentzen zuten Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko Administrazio Kontseiluarena dela diote zero zabor taldeetako ordezkariak. Eta argi zioten frontoiko agerraldian, “orain eragiten duten zalapartak, ez ditu erantzukizun horretatik libratzen”.

Gogora ekarri dute 2011ko urriaren 13an, orduko GHK-ko Adminis-

trazio Kontseiluak deitu zuen ez ohiko bilera. Legegintzaldi berri honetan GHK-ko buru izango zirenek erraustegia eraikiko ez zutela jakin arren, “premiak deitutako ez-ohiko bileran, errauste plantaren oinarriko proiektua onartu zuten, orain bertan behera utzi behar izan diren kontratuak indarrean jarri. Orduan ere gogor salatu genuen horren asmo bakarra: gipuzkoarrei xantaia egitea, haien proiektu toxikoan atzera egiteari ordain ekonomikoa jartzea”. Horregatik, onartezintzat jotzen dute errauste planta gelditzeak ekarri dituen gastu eta kalte ordainen arduragun GHK-ko arduradunei leporatzea.

Aipamen hauen gaintik halere, pozik dira Gipuzkoa Zero Zabor eta herrietako zero zabor taldeetako kideak. Errauste planta gelditu izana ospatzeko prest jada. Hilabete amaieran, jaialdia Usurbilen.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Josue Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ARTZABAL

Baserria - Jatetxea

☎ 943 36 91 39

JUANTXO BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

☎ 943 370 008

Etxekoen uzta, Durangoko Azokan

Ostegun honetan zabalduko dira Durangoko Azokako ateak. Igandera birtarte, kulturaren plaza bihurtuko da Durangoko herria. Diskogintzan eta liburugintzan nobedade ugari izango dira aurten. Eta tartean, usurbildarren sormen-lan berriak. Hauxe duzue lagin modukoa.

JOXAN ARTZEREN BI POESIA LIBURU

Heriotzaren ataria dugu bizitza (Elkar)

Bizitzaren atea dukegu heriotza (Elkar)

Ez du prentsaurrekorik eskaini baina Joxan Artze poetak bi poesia liburu kaleratu berri ditu: *Heriotzaren ataria dugu bizitza* eta *Bizitzaren atea dukegu heriotza*. Poema bilduma berri baten lehenengo bi aleak dira hauek. Orotara zazpi izango dira. Argitaletxetik aditzera eman dutenez, datorren urte hasieran aurkeztuko ditu Joxan Artzek aipatutako bi liburu hauek.



Joxan Artzeren bi poesia liburu berri topatuko dituzue Elkarren stand-etan.

MIKEL LABOA, ZUMETAREN BEGIETAN *Xume. Laboa Zumetarenean (Elkar)*

EHUko Mikel Laboa Katedrak antolatu zituen jardunaldien aitzakian, Jose Luis Zumeta margolaria liburu batekin datorrigu Laboaz mintzatzera, tonu intimo batean, adierazpen isilean. “Zumeta, irudien bidez mintzo da. Mikel Laboaren irudiaren barietate piktoriko xume eta sentikorrek Mikelek kantatu zituen poetekin batera datoz”, prentsa ohar bidez adierazi dutenez.



Laboaren omenezko “Xume” lana Zumetaren irudiez osatzen da.

Odolaren Mintzoa eta Joseba Tapiaren diskoak

Joseba Tapiak disko berria plazaratu du: “Tximela kapitainaren izarrak”. Eusko Gudarosteko Tximela kapitainak Duesoko espetxean egin zituen idatziak musikatatu ditu, gitarraren baten laguntzaz.

Juanba Berasategik diseinatu du “Tximela kapitainaren izarrak” diskoa eta eskuratu nahi duenak era honetan egin dezake. Email bidez eskatu: josebatapia@gmail.com

Edota Gor diskoetxearen webgunean, gordiscos.com helbidean eskaera egin.

Formatu elektronikoa ere



Joseba Tapia.

lor daiteke, eta horren argibideak Tapiaren web orrian dituzue: josebatapia.com

ODOLAREN MINTZOA

NOAUA!n aditzera eman genuen moduan, lehen diskoa

argitaratu eman du Odolaren Mintzoa taldeak. Zazpi urteko ibilbidean, hainbat kontzertu eskaini eta maketa bat plazaratu ondoren, sei kantuz osaturiko CDa argitaratu dute Oihuka diskoetxearekin.

Sentitu, Pentsatu, Ekin! (Elkar) liburua idatzi du Amagoia Mujikak

25 urte bete dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots bezala ezagutzen ditugun pailazoaren ibilbidea abiatu zenetik. Geroztik hona, hamaika bizipen izan dituzte, beraien gan sekulako arrastoa utzi eta euren unibertso propioa sortuz. Liburu hau da horren guztiaren lekuko. Amagoia Mujika usurbildar kazetariak eginiko kronika honi esker, sudur gorriari pegatuta bizi diren Aiora, Joxemari eta Mertxe ezagutuko ditugu. Helduei zuzenduriko liburuak da berez, baina badu txikien gozagarri izateko osagairik ere. Pailazoaren hogeita bost bideo-klip jasotzen dituen DVDa du liburuak.



Amagoia Mujikak idatzi du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren liburuak.

Yolanda Arrietaren idazketa tailerrak Durangoko Azokan

Liburuak saltzeaz gain, ekitaldi ugari egingo dira Azoka egunetan. Tartean, haur eta gazteentzat tailerrak. Abenduaren 5ean, idazketa tailerrak eskainiko ditu Yolanda Arrietak: “Egun batez idazle” izenburupean, hiru saio eskainiko ditu LH 4 mailako ikasleentzat: 10:30ean, 12:00etan eta 14:30ean. Durangoko Azokako Saguanbara gunean (Landako eraikin nagusitik 30 metrora dagoen Elkartegia eraikinean).

Hamarkada bat, adinekoen

Langileei galdetuta, adinekoekin lan egitea aberasgarria, betegarria dela, emandakoa baino gehiago jasotzen dutela, eta aiton-amonengandik ikasteko asko dugula diote. Familiak ere pozik eta lasai daude, senide dituzten erabiltzaileek jasotako zerbitzuarekiko konfiantza osoa dute. Eta azken hamarkada honetan bezala, Usurbilgo Udalak ere gunearen aldeko apustua egiten segitzeko asmoa du aurrerantzean. Proiektuaren sustatzaile, erabiltzaile eta senideen partetik, azaroaren 17an hamar urte bete zituen Eguneko Zentroaren inguruan egiten duten balorazioa baikorra da oso.

Gustura diren seinale, azaroaren 15ean guztiak batera burutu zuten urtemuga festa. Ilusio handiz ospatu zuten eguna, gunea 2003an inauguratu zutenean bezalaxe. Eguneko Zentroarekin lotura duten lagunak bildu zituen hitzordu bereziak. Udal ordezkariak eta gizarte zerbitzuetakoa, zentroko lan taldea, bertan dauden adinekoak eta euren senideak. Festa polita ospatu zuten. "Psikomotrizitate eta memoria landu genuen, hemen egin ohi



Azaroaren 17an hamar urte bete zituen Eguneko Zentroak

ZENTROKO LAN TALDEA

"Familiak oso pozik agertzen dira. Bai lehen izan ditugunak, baita orain daudenak ere. Usurbil baterako baliabide oso aberatsa da, ezinbestekoa gaur egun"

dugun moduan. Gero, adinekoen parte hartzearekin urteotan jasotzen joan garen esaera zaharrak gogorarazi genituen. Bertso berriak eta kantuak ere

abestu genituen", azaldu digu pozarren Eguneko Zentroko lan taldeak. Lanbide Hastapeneko ikasleek prestaturiko luntx eder askoarekin borobildu zuten, senide eta udal ordezkariak agurtu ostean, ohiko jardunera itzuli ziren festa eguna.

"Baliabide oso aberatsa, ezinbestekoa gaur egun"

Bost erabiltzaile zituela inauguratu zuten 2003ko azaroaren 17an, Usurbilek ordura arte izan ez zuen Eguneko Zentroa. Zerbitzu berri bat zen artean.

Ilusio handiz hasi zen bertako lan taldea ekinean, baina hamarkada bat bete den honetan gogorarazi digutenez, egitasmoa martxan jarri berritan bazen halako beldurra, "zer nola erantzungo zuen jendeak", zerbitzu berria izanda "artean ez zekitelako" zer harrera izango zuen.

Proiektua bera garatzen joan ahala ordea, beldur guztiak uxatu dituzte. Eta orain, irekieratik hamarkada bat bete den honetan, argi dute. Egitasmo honen sustatzaileak, erabiltzaileak eta senideak, denak gustura asko dira. Sendotuta eta aurreikuspenak beteta heldu dira 10. urtemugara. "Jendeak ikusi du zer nolako zerbitzua den, benetan oso gomendagarria dela. Familiak oso pozik agertzen dira. Bai lehen izan ditugunak, baita orain daudenak ere. Usurbil baterako baliabide oso aberatsa da, ezinbestekoa gaur egun", diote Eguneko Zentrotik. Gunearekin gustura diren edo ez jakiteko, termometro lanetarako lagungarri suertatu zaizkie erabiltzaileen senideei eginiko asebetetasun inkestak. "Familiak beren poztasuna agertzen dute, oso gustura daude", zentrotik NOAUA!ri adierazi diotenez.

Gune irekia, inguruari lotua

Badira balorazio baikor hau eragiten duten zenbait faktore. Zentroaren txikitasuna hasteko, "badu bere abantaila, familia giroan gaudela. Adinekoen artatzea oso gertukoa da, oso pertsonalizatua. Oso familia giroko zentro bat dugu. Eta horizorte oso handia da". Zentroak kokagune berezia du gainera. Ez baita ahaztu behar, garai bateko Haur Hezkuntzako

ikasleak biltzen zituen eraikina, egun Usurbilgo belaunaldi gazteen eta helduenek partekatzen dutela; haurtxoek, eta aiton-amonak. "Ingurune oso aberatsa dugu. Haurrak ditugu aldamenen. Hilean behin bisitan izaten ditugu, patioan jolasten ikusten ditugu", azaldu diote NOAUA!ri Eguneko Zentrotik.

Aiton-amonen gunea irekia da, eta herrian bertan ahalik eta inte-

gratuenen egoten ahalegintzen dira. Haur Eskolakoetz gain, bisita gehiago ere izaten dituzte. Duela aste pare bat, hamargarren urtemugan, senideak edota udal ordezkariak izan zituzten bisitari. Haurrak, gazteak, Parrokiakoak... bisitan izan dituzte baita. Eta laster, hilabete honetan bertan, Zumarteko gaztetxoak Eguneko Zentrorra bertaratzekoak dira. Baina atek herritar ororentzat

dituzte zabalik.

Bisitak, atsegin handiz

"Bisitak ere hartzten ditugu eta gainera, atsegin zaizkigu. Beti daude atek zabalik. Ezagutu nahi duten guztiak etorri ahal izan dira. Inork interesik badu eguneko zentroa ezagutzeko etor dadila, atek zabal zabalik ditugu", luzatu dute gonbita langileek.

bizi-kalitatea hobetzen



Eguneko Zentroak mesede egiten die adinekoei, eta baita euren senideei ere.

Senideak eta langileak elkar hartuta

Eta honek guztiak noski, mesede egiten die adinekoei, nola gainera. Baita senideei ere. "Beraiek konturatzen dira, etortzea mesedegarri zaiela. Eta eguna, askoz ere errazago, entretenituago pasatzen dute. Mesedegarri zaie baita beren garapenerako ere. Batzuk daukaten ezintasun horretatik hobetu egiten dira. Badira hobetzen diren kasuak", diote Eguneko Zentrotik. Horretan dihardute langileek, ahal den neurrian dependentziadun adinekoen bizi-kalitatea hobetzen. Eta senideak laguntzen. Adinekoak zentroan dauden orduetan, senideek euren bizi-modua egiteko tartea hartzeko aukera izaten baitute.

Erabiltzaileen familiak aipatuta, eta beti ere adinekoa bera ardatz hartuta, garrantzitsutzat jotzen dute Eguneko Zentrotik senideen eta bertako langileen arteko elkarlana. Elkarren berri izatea alegia. "Guretzat garrantzitsua da se-

EGUNEKO ZENTROAN

Astelehenetik ostiralera, Kalezarreko gune honetan plazak beteta daude. Baja bat eman izan denean, berehala bete da"

nideek duten informazioa, aiton-amonak nola datozen jakitea", Eguneko Zentrotik esaten. Eta alderantziz, garrantzitsua da baita zentroko langileek adinekoa zentroan nola dagoen jakinaraztea senideei. Langileok kontuan izaten baitute, familientzat askotan ez dela erraza adineko senidea Eguneko Zentrorra eramateko erabakia hartzea. Denek, hasieran, langile, erabiltzaile eta familieko egoera berrira egokitu behar izaten dute. Eta bistan denez, helburua lortzen dute.

Plazak beteta

Azken urteotan sarritan entzun ohi duguna, jendarte zahartzen ari dela. Eta horri

gizonezko zein emakumezkoen bizi-itxaropena luzatzen ari dela gehitzen badiogu, bide honetatik segituta etorkizunean Eguneko Zentroa bezalako baliabideen beharra ere handituko dela ia segurua izango da.

Kalezarko gunean une honetan, astelehenetik ostiralera 12 lagunentzako plaza dago, asteburuetan 6 aiton-amonentzako lekua. Aste tarteko plazak beteta daude; 12 lagun dituzte. Ez dute baja askorik izaten, zerbitzu egonkorra dela diote. Eta orain arte, bajaran bat gertatu izan denean, berehala, hutsik geratu den plaza Gizarte Zerbitzuetan itxarote zerrendan zen adinekoak bete izan du. Baina esandakoa, erabiltzaileen artean ez da gorabehera handirik egoten, zerbitzu egonkorra dela diote. Baina hori bai, lagun gehiagorentzat lekua balego, hobe. Bertatik adierazi digutenez, herrian bada Eguneko Zentroa txikitxo geratu den sentsazioa.

Gizarte Zerbitzuetara jo behar da lehenik

Adineko baten zaintza, Eguneko Zentrotarekin partekatu asmo duen senideak, hau da, aitona edo amona Kalezarko gunera eramateko asmotan den senideak, lehenbizi, beharrezko informazio edo argibideak jasotzeko Gizarte Zerbitzuetara jo behar du. Bertan emango diote, beharrezko xehetasun guztien berri. Eta bertatik bideratuko da baita tramitazio lana.

Halere, Eguneko Zentroaren funtzionamendua, bertako egunerokoa ezagutu nahi duenak, hango erabiltzaile izan diren senideei galdetuta ere jaso daiteke, edota Kalezarrera gerturatu. "Hemen atek zabal zaballik ditugu, edozein zalantza, kezka, galdera badute, galdetzeko eta etor daitezela", adierazi dute Eguneko Zentrotik.

Eguneko Zentroak bi egonaldi eskaintzen ditu: bat astelehenetik ostiralera, bestea, astelehenetik igandera artekoa. Informazio gehiago, Gizarte Zerbitzuetan edo bertara deituta: 943 377 110.

GSR-k jarraituko du Eguneko Zentroa kudeatzen

Eguneko Zentroa kudeatzeaz arduratu den GSR enpresak Kalezarko eraikineko zerbitzuaz arduratzen jarraituko du, beste bi urtez gutxienez. Usurbilgo Udalak deituriko lehiaketa publikora aurkeztu den enpresa bakarra izan da GSR. Eguneko Zentroaren zerbitzuari dago-kionean beraz, ez da aldaketarik izango. Orain arteko enpresa eta lan talde bera arduratuko da, gunearen kudeaketaz. Beste bi urtez gutxienez, eta gehienez lau urteraino.

Inaxio Usarralde: “Gai jartzaile batek garbi i

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren pareko fenomeno gutxi dago. Bertsolariak dira goiburuak eramaten dituztenak. Baina txapelketaren baitan jende asko aritzen da lanean. Batzuk funtsezkoak dira, gai jartzaileak. Horien artean da Inaxio Usarralde. Tolosako finalaurrean, bera izan zen bertsolarien “bideratzaile”.

Tolosako saioa eta gero, lasaiago bizi duzu txapelketa? Inaxio Usarralde. Saio batek ardura maila bat ematen dizu eta zentzu horretan akaso bai, baina talde baten partaide zaren aldetik hasieratik bukaeraino, oraindik bada lana egiteko. Nik uste dut hau ibilbide bat dela eta balorazioak, beti bezala, amaieran egin beharoko direla.

Finala gerturatu ahala.

Bai, zeren aurretik entzundakoekin (eta normalean gauza onak entzun ditugu) zure buruarekin exigenteago izateko behar bat ikusten duzu. Mailari eutsi edo gutxienez hobetzen saiatu. Orain arte lore politik entzun eta azken sprint honetan behera egingo bage-nu ez litzaiguke zapore ona geratuko. Eta beti gustatzen zaizu lana ondo borobiltzea.

Tentsioa igotzen joatean da finalari begira. Masa hori mugitzen hasten da, finaleko sarrerak agortu egin dira eta jada handiagoa da dena. Nahiz eta ezaguna izan, badu beste ardura maila hori.

Zuena, dena den, lan kolektiboa da. Talde-lana. Gai jartzaileena, alegia.

Bai, hala da. Bereiztu egin behar dira: bat da gai-jartzaile lana. Gaiak taldera ekarri, hitz egin, adostu, zehaztu,



Gai jartzaile lanetan eskarmentu handia du Inaxio Usarralde aginagarrak. Hainbatetan aritu da Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketetan.

INAXIO USARRALDE

“Goian dagoen bertsolariarentzat, txapelketetan gehiago egoten da galtzeko irabazteko baino”

idatzi, erredaktatu, formulatu... Lan hori da bat. Eta horren plazaratzea beste lan bat da: saioa aurkeztea.

Taldean badugu aurkezle lana gustuko ez duenik, ez duelako bere burua ikusten edo ez duelako nahi. Badauzkagu horrelako kideak ere. Nik uste dut bi gauza direla.

Publikoaren aurrean zaude-nean, hor badaukazu ardura indibidual bat, batez ere bertsolarien aldarteari begira. Zu

tartean zaude, zure portaeraren arabera ondokoak urduri-tu edo lasaitu ditzakezu.

Horrela bizi dugu txapelketa. Nik dagoeneko txapelketa batzuk badaramatzat, eta beste txapelketen aldean ez da ezberdina. Antzekoa da.

Barne lan hori ordea, talde lan isil hori antzekoa da. Atzo bost orduko bilera izan genuen. Asteburuko saioak prestatzeko...

Tentsioa izaten da bertsolarien artean. Ez dakit hori oholtzatik nola bizi duzen, gai jartzaileen talaiatik.

Goian dagoenarentzat, gehiago egoten da galtzeko irabazteko baino. Beti dago demostratu behar hori, hor zaudela, hor jarraitzen duzula...

Txapelketari jarriko dizkio-

gu nahi dituzun adjetibo guztiak, morbo edo tentsio hori jaisteko. Baina azken batean momentua iristen da eta hor inork ez du atzera egin nahi. Maila horretan, zure lanak ardura dauka. Bertsolari batek momentu batean egin dezakeenaren aurrean.

Orain, txapelketan, jaialdietako saioetan ez bezala, ez dakigu nori jarri behar diogun gaia. Zentzu horretan gure burua babestuta sentitzen dugu. Ez daukagu inori azalpenik eman beharrik.

Bertsolariak bizi dituen tentsioak aurkezle zaren momentutik ikusten dituzu, sentitzen duzu, eta baita oholtza atera aurretik zozketa egiten denean beraiek bizi dituzten sentimendu horiek...

Nik uste dut denak oso ondo dakitela zein mailarekin iritsi diren. Kanporaketetan hasten den batek nahi du gutxienik semifinaletara iritsi. Kanporaketako saio hori ondo egin nahi du ordea, eta horrek sortzaileari suelto aritze horretan, eragin egiten dio.

Jokin Uranga, adibidez, kanporaketetan askoz lotuago ibili zen Gernikako semifinalean baino. Jokin Uranga edo Mantxi semifinaletara pasa dira eta beren helburua lortutzat eman dute. Eta patxada horrekin semifinaletako saioetara zoaz eta *pin pan* lotsagabekeria horrekin asmatzen badituzu bi edo hiru kolpe, ba hor zaude goian... Eta lotsagabekeria hori beharrezkoa da sormen momentuetan.

Finalari begira dabilena ordea, ari da neurtzen, irristarik ez egiteko... Hor gauza gehiago nahasten dira. Eta gero, noski, egunak izaten dira.

izan behar du sortzailea bertsolaria dela”



Tolosako saioan aritu zen gai jartzaile Inaxio Usarralde, pasa den azaroaren 10ean.

Lana ez da txapelketa-ko kanporaketekin hasten. Askoz lehenago hasten dira gai-jartzaileak txapelketan pentsatzen. Uda aurretik hasi ziren gai orokor batzuen bueltan lanean. Eta uda ondorenean, gaiak fintzen eta erre-daktatzen.

Zeintzuk dira gai jartzaileak beharko lituzkeen ezaugarriak?

Inaxio Usarralde. Askotan egiten da galdera hori eta ez dakit erantzun borobilik ote dagoen. Nik nirea esango dizut. Nik uste dut gai jartzaileak izan behar duela bideratzailea. Gai jartzaile batek garbi izan behar du sortzailea bertsolaria dela. Momentu batean bertsolariak ez du gai jartzailearen beharrik baina bai gaiaren beharrik. Sormen lan horretan konplize da baina argi izan behar du protagonista bertsolaria dela.

Ikuspegi horretatik, nik uste

INAXIO USARRALDE

“Gure kezkarik handiena eta buruan present dagoen ideia da oreka. Tematika aldetik, rol aldetik, ariketa batetik besterako oreka...”

dut bideratzaile izan behar duela eta gero nahi baduzu, ezaugarri teknikoago batzuk ere badaude. Formulazioan oso zehatza izan behar du, bapatean ari garenez, lehenbizikoan ideia sartzeko moduan formulatu behar duzu, simple. Ez bakarrik bertsolaria, entzulea ere kontuan hartu behar duzu. Euskal Herriko txapelketaz ari garela hori eztabaida askotako gaia izaten da. Gauzak nola esan. Baxenafarroako entzule bat, Ziraukiko bat eta Gasteizko bat badaude, denak elkar ulertu behar dute. Horrelako gauzak badaude, teknikoagoak direnak. Baina uste dut sentiberatasunez zaintzen di-

ren gauzak direla horiek.

Gai jartzaileen ikuspegitik, prestaketa lanak lehenago hasten dira, ezta?

Prozedura nahikoa finkatuta dago. Bi garai bereizten ditugu normalean. Uda aurreko garaia, eta uda osteko garaia. Uda aurretik, erritmo lasaiagotan aritzen gara eta hilean behin elkartzen gara. Lehenbiziko gaiak biltzen hasten gara. Hori uda aurreko fasean. Ideia bat onartzen errazagoa den fasea dela esango nuke.

Uda ondorenean, iraila bukaeran, lehenbiziko saioa izaten da bai Gipuzkoakoan eta baita Euskal Herrikoan ere. Hor hasten gara benetako erredakzioa ematen gaiari. Gure kezkarik handiena eta buruan present dagoen ideia da oreka. Tematika aldetik oreka, rol aldetik oreka, ariketa bakoitzetik bestera oreka... oreka da gure kezka. Kritika guztiak ere oso ondo hartzen ditugu baina normalean hortik datoz kritika gehienak.

“Eguneroko bertso mugimendua da zaindu beharrekoa”

Zure ikuspegitik, nola joan da txapelketa?

Inaxio Usarralde. Gauza elementalenetan ez da aparteko sorpresarik izan. Jendearen erantzuna beti bezain ona. Aurten finaleko sarrera horiek hilabete lehenago salduta egotea, harritu egin nau eta zenbat jende sarrera gabe harra-patuko zuen... Hainbat lagun, oso gertukoak. Baina jendea mugitu egin da.

Kontua betikoa da. Bertsolaritza ez da txapelketa bakarrik. Eta ze ederra den 50 edo 60 laguneko afari batean, bertso saioa egitea. Baina horiek uste dut galtzen edo eusten kosta egiten ari zaigula.

Nik nire gertukoengatik esango dut. Bertso afari bat antolatzen dugu urtero eta hor 35-40 lagunetik gora pasatzea kosta egiten zaigu. Orduan, baditu bi alderdi. Ez gara tristetuko BEC bete egiten delako, baina bertso-afari, bertso eskola... eguneroko mugimendu hori da zaindu beharrekoa. Horren ondorioz iritsi gara BEC betetzera. BEC espejismo txiki bat izan daiteke. Ez gara hainbeste... Gero kontua da herri honetan elkartzeko aukera handirik ez dagoela. Aukerak falta ditugu. Kasurik bakarrenetekoa da inguruko erdaldukan inbidiaz egoten direnak.

Gainontzean, bertso mailari dagokionez, kanporaketetan denetarik izan da. Jendea bere burua kontrolatzen egon da, baina finalaurrekoetan gora egin duela uste dut.

KIKE AMONARRIZEN



**“XXI. mendeko
euskaldunak:
NOLA aldatu(ko) diren
gauzak kamarada”**

HITZALDIA
ABENDUAK 11. ASTEAZKENA
SUTEGIN · 19:00 · DOAN

NOVA



Usurbil Ustiak



Gasteizko Foru Aldundia

ONTZI ARINETAN
PLASTIKODUN ONTZIAK, LATAK ETA BRIK-ak SOILIK



* GARBIGUNERA EDO ERREFUSARA

INGURUMENA GUZION ARDURA DA
BIRZIKLA DEZAGUN!



GOGORATU: ONTZI ARINAK ASTEARTE ETA OSTIRALETAN

Sen taldekoen azken kontzertua, Aginagako eliza zaharrean

Aginagan inoiz baino giro biziagoa sumatuko da hasi berri dugun hilabete honetan. Eguberriengatik batez ere; txokoak eta zenbait emanaldi antolatu dituzte, urte garai honetan ohiokoa diren beste zenbait deialdiez gain. Aurretik ordea, badira beste zenbait ekitaldi ere; nabarmenena, eta gertuen duguna, Sen taldearen azken kontzertua abenduaren 14an.



Abenduaren 14an, Odolaren Mintzoarekin batera arituko dira Sen taldekoak.

Sen taldekoen agurra

Usurbilgo Gaztetxean hasi zuen bira iragan martxoan. Eta esana zuten, kontzertu sorta bat eskaintzekoak zirela. Bira modukoari amaiera data jarri diote orain. Abenduaren 14an agur esango diote zaletuei Haritz Harreguy eta talde kideek, Aginagako Eliza Zaharrean.

Ziur, berezia eta gogoangarria izango den azken kontzertua eskainiko dute bertan. Aurretik, euren lehen lana plazaratu berri duten Odolaren Mintzoa taldekoek joko dute. Hau guztia, gaueko 23:00etan hasita. Ondoren goialdera arte parranda giroa, DJ batekin. Kontzertu gauerako sarrerak aldeaz aurretik eskura daitezke 3 eurotan Aitzagan eta Aginagako Arrate Elkartearen. Egunean bertan ere sarrerak salgai izango dira.

ren goialdera arte parranda giroa, DJ batekin. Kontzertu gauerako sarrerak aldeaz aurretik eskura daitezke 3 eurotan Aitzagan eta Aginagako Arrate Elkartearen. Egunean bertan ere sarrerak salgai izango dira.

Azoka begibistan, jostailu erabiliak batzeko garaia da

Berrerabilpena sustatu asmo duen ekimen honen bezperatan, abenduaren 11tik 13ra bideratuko du Hitz Aho Udaregi Ikastolako Gurasoen Elkarteak jostailuen bilketa, Sutegiko erakusketaretoan. Ordutegi honetan: arratsalde, 17:00etatik 19:00etara.

Jostailuak uzteko zenbait baldintza bete behar dira; jostailuek osorik egon behar dute; DVD eta antzeko produktuek jatorrizkoak izan behar dute; musutruk emango dira eta nahi duenak txartela jasoko du azoka egunean beste jostailu batengatik trukatzeko; 8 urtetik beherakoek arduradun batekin egin ahal izango dute trukea azoka egunean. Azkenik, azoka amaieran bertan geratzen diren produktuak beharra duten erakundeetara bideratuko dituzte Hitz Ahoko kideek.

Laguntza beharrean

Jostailu Erabilien Azoka, abenduaren 14an frontoian, 11:00-13:00 artean. Gunea dinamizatzen Gaztelekuko gazteak arituko dira. Azoka bera eta bilketa lanak burutzeko laguntzaile-



Datorren asteazkenean hasiko dira jostailuak biltzen Sutegin.

ak behar dituzte Hitz Ahokoek. Animatzeko diren idatzi dezatela hitzaho@udarregi.com helbidera edo zuzenean jar daitezela harremanetan guraso elkarte kideekin.

“Ardura nola sustatu”, hitzaldia Aginagan

Izenburu hori darama San Praixku Guraso Elkarteak abenduaren 12rako Aginagako ludotekan antolatatu duen hitzaldia. 19:00etan hasiko den saioak, epe luzera begirajarrita, ardura sustatzeko teknikak eta estrategiak ezagutzeko aukera emango du, Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioaren bidez.

Jakin eta Jolas, Aginagako ludotekan

Abenduaren 14an bisitan izango dira Aginagako ludotekan, arratsaldetik 17:00etatik aurrera. Antxomolantxa Elkarteak antolaturiko ekitaldirako sarrera, doakoa izango da.

Gabonetako txokoak Aginagan

Santo Tomas egunaren bueltarako ikasleak gabonetako oporraldian murgilduko dira. Ezin esan ordea aspertzeko tarterik izango dutenik. Eskaintza faltagatik behintzat ez da izango. Aginagan gabonetako txokoak antolatu ditu Antxomolantxa Elkarteak. Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. Astelehenetik ostiralera goizero, 9:00-13:00 artean (tartean egokitzen diren jai egunetan izan ezik). Plaza erreserbatu nahi duenak, aurrez izena eman beharko du. Abenduaren 13a baino lehen, 637 332 402 telefono zenbakira deituta. Bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte, gainerakoek 40 euro.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Enplegu eta negoziazio kolektiboaren alde

LAB sindikatuak azaroaren 28rako deituriko Mobilizazio Egunaren baitan, ordezkaritza talde bat Ugaldea industria gune sarrean elkarretaratu zen. Aurrean zuten pankartakzioen moduan, enplegu eta negoziazio kolektiboaren eta lan harreman eredu berri baten alde mobilizatu ziren. Beste hainbeste egin zuten larunbatean, sindikatu berak Donostian deitu zuen manifestaziora joan zirenek ere.

LAB sindikatutik, bizi dugun egoera bideratzen ez bada, datorrenaz ohartarazten dute: "Negoziatio kolektiboari irtenbiderik ematen ez bazaio, egoera guztiz larrituko da". Eguno lan harreman ereduak eta eredu ekonomikoak langile eta herri moduan



porrotera garamatzatela eta, argi diote, "gure herriko ekonomia, dituen ezaugarri bereziekin, ez da inoiz berpiztuko lan harreman eredu prekarioan oinarrituta eta negoziatio kolektiboari uko eginez".

Kasu askotan abenduaren 31ra arte luzatu dira lan baldintzak eta datozten aste hauek giltzarriak izango dire-

la aipatzen dute LAB-etik. "Berriro ere inflexio puntu garrantzitsua daukagu aurretik eta hilabete hauek erabakigarriak dira", ohartarazten dute. Langabeziari eta pobrezari aurre egin diezaiokete herritarrek, sindikatuaren esanetan. Horretarako hiru bitarteko dituzte; "mobilizazioa, borroka eta elkartasuna".

Konpromiso zehatzak hartu ditu Udalak, indarkeria sexistaren aurka

Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, udalbatzak indarkeria mota honen aurkako mozioa onartu zuen aho batez, aurreko asteko osoko ohiko bilkuran. Testu honen bidez, zenbait konpromiso hartzen ditu Usurbilgo Udalak; berdintasun-politikak garatzeko baliabideak gehitzen joatea, emakumeen ahalduntzea sustatzea, edota emakume gazteen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko erakunde arteko lankidetzak indartzea.

Testuak jaso bezala, emakumeek "askotariko aurpegi eta adierazpenak" dituen indarkeria matxistatik aske bizi

ahal izatea lortu nahi da. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da, eragile politiko eta herritarren adostasun eta konpromisoetan sakontzea. Hala nola, gizonezkoen artean gogoeta sustatzea, errealitate anitzetara egokituko diren politika malguak bideratzea...

Konpromisoak

- 1. Berdintasun-politikak garatzeko baliabideak urtetik urtera indartzea.
- 2. Parte-hartzean oinarritutako prozesuak abian jartzea edo bultzatzen jarraitzea.
- 3. Emakumeen ahalduntzea sustatzeko eremu komunak sortzea edo/eta baliabideekin indartzea:

ahalduntzeko eskolak esaterako.

- 4. Beste udalerririk batzuekin elkarlanean hastea edo parte hartzen jarraitzea sare-programen bitartez abian jarritako eremu kolektiboe-tan.
- 5. Emakume gazteen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko erakunde arteko lan-prozesuak baliabide tekniko eta ekonomikoekin sendotzea.
- 6. Lan kolektiboaren abian jartzea edo/eta indartzen jarraitzea, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta hobetzeko koordinazio-protokolo loka-larekin.

Bilera informatiboa, Ucinen inguruan

Nobedade garrantzitsuak daude Ucin eta aire kalitateari dagokion gaian. Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, "Eusko Jaurlaritzak berrikusi egin dio Ucin enpresari bere Ingurumeneko Baimen Bateratua, eta zenbait aldaketa esanguratsu egin ditu". Horien aipamena egin eta aldaketok airearen kalitatean zer nola eragingo duten azaltzeko bilera deitu du.

Abenduaren 10ean Potxoenean

Usurbilgo Udalak, datorren abenduaren 10erako, iluntzeko 19:00etan Potxoenean. Egoera honen aurrean Udalak duen jarraera ere azaldu nahi zaie herritarrei, hitzordu berean.

Udal aurrekontuak, hasieraz onartzeko bidean

Datorren urterako diru kontuak aurkeztu zituen Usurbilgo Udalak, azaroaren 28an Potxoenean deitu zuen bileran. Guztira, 10,23 milioi euroko udal aurrekontuak. Herritar eta eragileek ekarpenak jasotzeko aukera zegoen aurreko asteko bilkuran. Proposamenak jasotzeko gobernu taldeak zabaldu zuen tartearen ostean, hasieraz onartu asmoa duen udal aurrekontuak abenduan deitu asmoa duten ezohiko osoko bilkura batean. Gero alegazioak aurkezteko aukera egongo da. Eta otsailera, behin betiko onarpena eman nahi zaie 2014rako udal aurrekontuei.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

WHEEL AKADEMIA
Talde murriztuak eta pertsonalizatuak
• Lehen eta Bigarren hezkuntza
• Batxilergoa • Selektibitateak
• Lanbide heziketa
• Ikasketak teknikoak • Hizkuntzak
629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Ion Korta, Euskal Herriko Mendi Duatloiko onenen artean

Igandean Zubietan jokatu zen azken probarekin amaitu da Euskal Herriko Mendi Duatloiko Zirkuitua. Pozik asko bukatu du Ion Korta Arregi usurbildarrak. Zubietako proban bosgarren. Eta Euskal Herriko mendi duatloiko lasterkari onenen artean baita, sailkapen orokorreko hirugarren postuan borobildu baitu denboraldia.

Korrika eta bizikleta gainean osatu behar zuten zirkuitua hain zuzen, Zubietako eliza atari paretik abiatu zuten parte hartzaileek. Leku berean amaitu zuten, 4,2 kilometro korrika, beste 8,9 kilometro bizikleta gainean eta azken 2,21 kilometroak berriz ere lasterka egin ondoren.

Gizonezkoetan helmugara heltzen lehena, Jon Erguin izan zen. Bosgarren postuan sailkatu zen lehen gizonezko usurbildarra; Ion Korta Arregi. Emakumezkoen artean, Aitziber Ibarbia izan zen



Jon Korta, Zubietako lasterketan.

helmugara heltzen lehena. Lau emakumezkoak parte hartu zuten Zubietako duatloian. Kirolarien artean baziren zubietarrak eta usurbildarrak. Baita aurpegi ezagunak ere; Abraham Olano handia tartean.

Sailkapenak: mendiduatloia.com

Kirol ikastaro eskaintza zabala Oiardo kiroldegian, 2014 urteko lehen hiru hilabeteetan

Eguberrietan jan-edanarekin zertxobait pasatzekotan denak, hemen du datarren urte berria sasoiko haste-ko errezeta ezin hobea. 2014a kirola eginez ekitea. Oiardo Kiroldegiak prest du hurrengo hiruhilekorako, urtarriletik martxorako ikastaro eskaintza. Hemen, jardueron berri, ordutegi eta guzti:

- **Sabeleko gimnastika:** astelehen eta asteazkenetan, 16:00.
- **Zumba gazte:** ostiraletan, 18:00.
- **Cycling gazte:** ostiraletan, 17:00.
- **Entrenamendu funtzionala:** astearte eta ostegunetan, 16:30.
- **Entrenamendu funtzionala:** astelehen eta asteazkenetan, 16:30.
- **Combygim:** astelehen eta asteazkenetan, 17:00.
- **Haurdunentzat gimnastika uretan:** hilabeteko ikastaroa: astearte eta ostegunetan, 15:30.
- **Igeriketa entrenamendua:** astelehen eta asteazkenetan, 15:30.
- **Igeriketa entrenamendua:** astearte eta ostegunetan, 19:00.
- **Informazio gehiago** Oiardo Kiroldegian, edo bertara deituta: 943 37 24 98.



Igeriketa entrenamenduak, eskaintzen artean.

San Silvestre eguneko lasterketarako entrenatzen hasi

Hirugarren pintxoak protagonista izan dituen igandeko Tipi-Taparen ostean, urte amaierari begira jarri da Hurbilago Elkartea. Datoren abenduaren 31n ospatuko da herri lasterketa honen laugarren edizioa. Izena emateko epea abenduaren 16an irekiko dute.

Apuntatzeko bide berri bat zabalduko dute, 2010az geroztik harrera ezin hobea izan duen ekimen honen antolatzaileek. Aurreko edizioetan bezala, Hurbilagoko kide diren establezimenduen eman ahal izango da izena. Eta aurten estreinakoz, baita Hurbilagok laster martxan izango duen web gune berriaren bidez ere. Herri merkataritza eta ostalaritza suspertzearen aldeko lasterketan parte hartu nahi duzuenok, hasi prestatzen urteko azken egunerako. Hurbilago San Silvestre herri laster-



Abenduaren 31n, arratsaldeko 17:00etan hasiko da lasterketa.

keta, abenduaren 31n, 17:00etan frontoi ingurutik hasita.

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Otar-Goxo
Elizkugaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Agenda abendua

5 osteguna

■ **GHKren ekitaldia** 19:00etan Sutegiko auditorioan.

8 igandea

■ **Odol Emaileen Eguneko bazkaria** Atxegan.
 ■ **Helduentzako zinea euskaraz: "Azken bidaia"**. 18:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrera: 5 euro, egunean bertan.

10 asteartea

■ **"Mundipurdiko ipuinak"** 18:00etan Sutegi udal liburutegian, HH 5ekoi zuzendua.
 ■ **Aire kalitatea eta Ucin hizpide** 19:00etan Potxoenean.

"Azken bidaia", II. Mundu Gerran girotutako filma

Usurbilgo Udalak azarotik martxora antolatutako duen euskarazko zine zikloaren baitan, aurreko igandean haurrei zuzenduriko filma proiektatu ostean, helduen txanda orain. 5 euroren truke, euskal zineaz gozatu ahal izango dute igande arratsaldeko 18:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. 5 euroren truke, II. Mundu Gerra garaiko kontuak dakartzan "Azken bidaia" filmaz hain zuzen.



Filmaren zuzendariak.

Cometè lhesbide Sarearen ibilerak

Duela 60 urte baino gehiago, gau batez izandako zorigaiztoko gertaera bat azaltzen du filmak. Pirinioetatik gertu kokaturiko baserri batean sei pertsona atxilotu zituztenekoa. Lagun hauen eta II. Mundu Gerran Cometè lhesbide Sarea osatu zuten ehunka pertsonen historia kontatzen du filmak.

Kulturaldian Udalarekin elkarlanean proiektatu genuen Zumetaren sortze lanari buruzko dokumentaleko zuzendarietako bat dugu, film honetan postu berean; Enara Goikoetxeaz ari gara. Iurre Telleriaren batera gauzatu du proiektu hau.

Datozenak

"Mundipurdiko ipuinak" liburutegian

Urrutiko eta han-hemenkako kontuekin etorriko da Maite Franko ipuin-kontalaria Sutegi udal liburutegira. HH5koei zuzenduriko emanaldia eskainiko du, datorren asteartean, abenduaren 10ean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.



Maite Franko, ipuin kontalaria.

Kike Amonarrizen hitzaldia Sutegin

"XXI. mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak Kamarada", izenburupean hitzaldia eskainiko du Amonarrizek, abenduaren 11n, 19:00etatik aurrera Sutegin. Euskal Herrian sortu diren egoera soziolinguistiko ezberdinen inguruko hausnarketa bultzatu nahi du Amonarrizek, saio honen bidez. Haur eta gazteen artean ugaldutako errealitate anitz eta konplexu honi buruz hitz egitera dator Sutegira.

KZgunea, abenduan arratsaldez zabalik

16:00etatik 20:00etara irekiko dute, astelehene-tik ostiralera. Baina hurbiltzen ari diren eguberriak direla eta, ohiko larunbat eta igandeez gain, egunotan itxita egongo da KZgunea: abenduaren 6, 23,24,25,30 eta 31n.

Informazio gehiago:

Tlf: 943 023 684.

@: tutor.usurbil@kzgunea.net

Web orria: www.kzgunea.net

"Erraustegia: kedarretatik argira" hitzaldia

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak antolatutako "Erraustegia: kedarretatik argira" izeneko saioa. "Bukatu da jolasa" izeneko ikus-entzunezkoa emango dute ezagutzera ekitaldian zehar.

Abenduaren 5ean osteguna, arratsaldeko 19:00etan Sutegin. GHK-ko lehendakari den Ainhoa Intxaurrendietak eskainiko du hitzaldia eta ondoren, bertaratzen direnei galderak egiteko aukera eskainiko zaie.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 **teillatuak eta fatxadak**
943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

“ Erraztasun guztiak eman
dizkirate gradu amaierako
lana leku interesgarri batean
egiteko.

Beñat Flores,

Ikus-entzunezko Komunikazioa,
4. maila.



PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · ABENDUAK 14

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · ABENDUAK 12

Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · ABENDUAK 14

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · ABENDUAK 13

Ostirala, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA · ABENDUAK 14

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ONLINE ATE IREKIAK

ABENDUAK 17

Asteartea, 18:00 (Euskaraz) / 19:00 (Gaztelera)

<http://mukom.mondragon.edu/mutb>

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu**

Herritarren sargardoa dastatzeko eta
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren **22an**
igande goizez

Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan.)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketa parte hartuko dute.

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:


ABENDUAREN 9tik 19ra
(biak barne)

- Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

- **1go saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€**
- **3. saria: 50€**



noaua